



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

## GOTZON GARATE BEKA EMATEKO OINARRIAK ETA HORIEI DAGOKIEN DEIALDIA

Elgoibarko Udalak, 2009an, "Gotzon Garate Bekaren" lehenengo deialdia egin zuen, ikerketa sustatzeko eta idazle eta hizkuntzalari elgoibartarrari merezitako aitortpena egiteko.

Beka honen helburua da euskararen ezagutzari, erabilerari eta elikadurari buruzko ikerlanak sustatzea.

Hona hemen Gotzon Garate Bekaren ezaugarriak:

- Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz egingo dira.
- Bekaren iraupena gehienez 14 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.
- Bekak 6.000 eta 20.000 euro bitartekoa zuzkidura ekonomikoa izango du.
- Beka honetarako deialdia bi edo hiru urtetik behin egingo du Udalak.
- Ikerketa lanak originala eta aurrez argitaratu gabea izan behar du.

Oinarri hauen xedea da Gotzon Garate beka emateko irizpideak eta prozedura arautu eta finkatzea, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak, ezartzen duena betez.

## BASES PARA LA CONCESIÓN DE LA BECA GOTZON GARATE Y SU CORRESPONDIENTE CONVOCATORIA

El Ayuntamiento de Elgoibar llevó a cabo en 2009 la primera convocatoria de la "Beca Gotzon Garate, con el fin de promover la investigación y realizar el debido reconocimiento a la figura del escritor y lingüista elgoibarrés.

Esta beca tiene por objeto fomentar y promocionar la investigación sobre el conocimiento, el uso y la calidad del euskera.

Las características de la beca Gotzon Garate son las siguientes:

- El proyecto, el trabajo de investigación y la memoria se realizarán en euskera.
- La beca tendrá una duración máxima de 14 meses, a partir de la fecha de adjudicación de la beca.
- La beca dispondrá de una dotación económica de 6.000-20.000 euros.
- El ayuntamiento realizará la correspondiente convocatoria de beca con una frecuencia de dos o tres años.
- El trabajo de investigación deberá ser original, y no deberá haberse publicado con anterioridad.

El objetivo de estas bases es la regulación y el establecimiento de los criterios y el procedimiento para la adjudicación de la beca Gotzon Garate, en cumplimiento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

2022koa Gotzon Garate bekaren laugarren deialdia izango da, eta ikerketa esparrua edo gaia honako hau izango da: "Hizkuntza aniztasuna Elgoibarren: jatorri atzeritarreko bizilagunak eta euskara".

Ikerketa lan honen helburu nagusia da Elgoibarren bizi diren jatorri atzeritarreko pertsonak euskararekiko eta euskal kulturarekiko dituzten pertzepzioak aztertzea eta hizkuntz integrazioan laguntzeko, etorkizunean egin litezkeen esku-hartzean kontuan hartu beharreko gakoak identifikatzea.

## GOTZON GARATE BEKAREN LAUGARREN DEIALDIA

Kontuan izanik, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioak euskararen normalizazioa lortzeko egiten ari diren ahaleginak;

Kontuan izanik, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 3. atalak dioela Espainiako hizkuntza ezberdinen aberastasuna babes eta begirune apartak zor zaizkion kultur ondarea dela;

Kontuan izanik, Elgoibarko Udalak, 2009an, ikerketa beka hau sortu zuela Gotzon Garate idazle eta hizkuntzalari elgoibartarraren omenez. Hori dela eta, Udalak bekaren deialdia egiten du, oinarri hauetan ezarritakoari jarraiki.

### I. BEKAREN EZAUGARRIAK

**I.1. Bekaren helburua:** Elgoibarrera bizitzera etorri diren jatorri atzeritarreko bizilagunek euskararekiko eta euskal kulturarekiko

La cuarta convocatoria de beca corresponde al año 2022, y el ámbito de investigación será el siguiente: "Diversidad lingüística en Elgoibar: vecinas y vecinos de origen extranjero y el euskera".

El objetivo principal de este trabajo de investigación es analizar las percepciones que las personas de origen extranjero residentes en Elgoibar tienen sobre el euskera y la cultura vasca e identificar las claves a tener en cuenta en una posible futura intervención para contribuir a la integración lingüística.

## CUARTA CONVOCATORIA DE LA BECA GOTZON GARATE

Considerando los esfuerzos que la administración de la Comunidad Autónoma Vasca está haciendo por normalizar el euskera;

Considerando que el apartado 3 de la Constitución Española de 1978 establece que la riqueza de las distintas lenguas de España es un patrimonio cultural merecedor de protección y respeto extraordinarios;

Considerando que la presente beca de investigación fue creada por el Ayuntamiento de Elgoibar en 2009 en homenaje al escritor y lingüista elgoibarrés Gotzon Garate. Es por ello que este Ayuntamiento realiza la convocatoria de beca, de acuerdo con lo establecido en las siguientes bases:

### I. CARACTERÍSTICAS DE LA BECA

**I.1. Finalidad de la beca:** Analizar las percepciones que las personas de origen extranjero que han venido a vivir a Elgoibar tienen sobre el euskera y la



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

dituzten pertzepzioak aztertzea eta hizkuntz integrazioan laguntzeko, etorkizunean egin litezkeen esku-hartzeetan kontuan hartu beharreko gakoak identifikatzea.

cultura vasca e identificar las claves a tener en cuenta en una futura intervención posible para contribuir a la integración lingüística.

Lan-planaren diseinuan, besteak beste, honako atal hauek landu beharko ditu bekadunak:

A la hora de diseñar el plan de trabajo, la persona becaria deberá tratar los siguientes aspectos:

- Immigrazio prozesuek euskararen erabileran izan duten eragina aztertzea, gure herrira iristen diren jatori atzeritarreko bizilagunek hizkuntza egoera, hizkuntza aukera eta hizkuntza zailtasunak nola bizi dituzten aztertuz.
- Elgoibarrera bizitzera etorri diren jatori atzeritarreko pertsonen egiten duten hizkuntza hautuaren arrazoiak, garatzen dituzten diskurtsoak eta euskarara hurbiltzeko behar dituzten baldintzak aztertzea.
- Hizkuntza integrazioarako lagungarriak izan daitezkeen gakoak aztertzea.
- Gako horiek hizkuntza politikan integratzeko proposamenak egitea.
- Analizar la influencia que los procesos de inmigración han tenido en el uso del euskera, analizando cómo viven la situación lingüística, las oportunidades lingüísticas y las dificultades lingüísticas las y los vecinos de origen extranjero que llegan a nuestra localidad.
- Analizar las razones de la elección lingüística que hacen las personas de origen extranjero que viven en Elgoibar, los discursos que desarrollan y las condiciones que necesitan para acercarse al euskera.
- Análisis de las claves que pueden ayudar a la integración lingüística.
- Elaborar propuestas para integrar estas claves en la política lingüística.

**1.2.** Diru-zenbatekoa: Bekaren zenbateko osoa 10.000 eurokoa izango da, eta Euskara Sailaren 2022. urteko aurrekontuaren 10204.480.335.00.03 2022 zenbakidun partidaren kontura emango da.

**1.2.** Importe económico: El importe total de la beca será de 10.000 euros, e irá a cargo de la partida presupuestaria 1.0204.480.335.00.03 correspondiente al presupuesto del ejercicio de 2022 del Departamento de Euskera.

**1.3.** Iraupena: Lana egiteko epea 8 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.

**1.3.** Duración: El plazo para realizar el trabajo será de 8 meses a contar desde el día de adjudicación de la beca.



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

- I.4. Lana euskaraz aurkeztuko da.
- I.5. Lana Udalaren Herritartasun Batzordearen ardurapean egingo da.
- I.6. Behin betiko ikerketa-lanari dagokionez, Udalak ikerketa-proiektua moldatu edo egokitzeko aukera izango du, ahal dela, bekadunarekin adostuta.

## 2. ESKATZAILEAK

Beka norbanakoek zein berariaz osatutako lantaldeek eskatu ahal izango dute. Bigarren kasu horretan, Udalaren aurrean ordezkari izango den ikerlan-taldearen zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.

Eskatzaileak erdi edo goi mailako unibertsitate titulua izan beharko du, eta gainera, EGA agiria edo baliokideren bat.

“Hizkuntza aniztasuna Elgoibarren: jatorri atzeritarreko bizilagunak eta euskara” gaiari buruzko txostena aurkeztu beharko du, non Elgoibarrera etorri diren bizilagun berriek euskararen eta euskal kulturaren inguruan dituzten hautemateak aztertzeaz gain, horien hizkuntza integrazioan laguntzeko esku-hartzean kontuan izan beharreko gakoak landu beharko baititu.

Esleipendunari proiektuaren erantzule izango den Jarraipen Batzorde bat ezarriko zaio, proiektua zuzentzeko eta koordinatzeko. Batzorde horretako kideak Udalak izendatuko ditu.

- I.4. El trabajo se presentará en euskera.
- I.5. El trabajo se realizará bajo la supervisión de la Comisión de Ciudadanía del Ayuntamiento.
- I.6. En cuanto al trabajo de investigación definitivo, el Ayuntamiento podrá modificar o adaptar el proyecto de investigación, a poder ser, contando con el acuerdo de la persona becaria.

## 2. SOLICITANTES

Podrán solicitar esta beca personas físicas a título individual o grupos formados a tal efecto. En el segundo caso, se nombrará un director o directora responsable del trabajo de investigación que representará al mismo ante el Ayuntamiento.

La persona solicitante deberá estar en posesión de un título universitario de grado medio o superior, y, además, deberá estar en posesión del título de EGA o equivalente.

Deberán presentar un informe correspondiente al siguiente tema: “Diversidad lingüística en Elgoibar: las y los vecinos de origen extranjero y el euskera”, en el que además de analizar las percepciones que las y los vecinos de origen extranjero que han venido a vivir a Elgoibar tienen sobre el euskera y la cultura vasca, deberán trabajar las claves a tener en cuenta en la intervención para contribuir a su integración lingüística.

A la persona adjudicataria se le designará una Comisión de Seguimiento que se encargará de dirigir y coordinar el proyecto. La designación de los y las componentes de la Comisión corresponde al Ayuntamiento.



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

### 3. ESKABIDEAK

Interesdunek Elgoibarko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan edo modu telematikoa aurkeztu beharko dituzte eskabideak, honako agiri hauekin batera:

- a) Espediente akademiko xehatua eta osoa, jatorrizko agiriaren edo agiriaren fotokopia konpultsatuen bidez. Lantaldeen kasuan, partaide orok aurkeztu beharko du bere espediente akademiko osoa.
- b) Curriculum Vitae. Lantaldea baldin bada, partaide guztiena aurkeztu beharko da. Era berean, lanbide eta euskara arloko ikerketa esperientzia, egin dituen/dituzten lan eta argitalpenak, eta gainerako datu aipagarriak ere adieraziko dira.
- c) Lana nola egingo lukeen/luketen azalduko duen memoria bat, ahalik eta modurik zehatzenean eta, bereziki, atal hauek garatuko dituen (15 orrialdekoa gehienez ere):
  - Helburua
  - Lana garatzeko kronograma.
  - Erabiliko den lan-metodologia.
  - Erabiliko diren bitarteko eta baliabideak, alde batetik, aztertuko dena biltzeko, eta bestetik, jasotakoa eta aztertutakoa gizarteratzeko.
  - Aurreikusitako emaitzak.
  - Bestelako finantzabideak, baldin eta baleude.

d) Eskatzailearen edo eskatzaileen nortasuna egiaztatuko duten agiriak (NAN edo

### 3. SOLICITUDES

Las personas interesadas deberán presentar sus solicitudes en la Oficina de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Elgoibar, o de manera telemática, junto con la siguiente documentación:

- a) Expediente académico detallado y completo, en documento original o en fotocopia compulsada de ese documento. En el caso de que se trate de un grupo de trabajo, deberá presentarse el expediente académico de cada una de las personas participantes.
- b) Curriculum Vitae. En caso de que se trate de un grupo de trabajo, deberá presentarse el curriculum de cada una de las personas integrantes. Experiencia profesional y de investigación en tomo al euskera, publicaciones y demás datos reseñables.
- c) Una memoria explicativa (máximo 15 páginas) de cómo realizaría/n el trabajo, de la forma más concreta posible, desarrollando en especial, las siguientes cuestiones:
  - Objetivo
  - Cronograma del desarrollo del trabajo.
  - Metodología de trabajo a emplear.
  - Medios y recursos disponibles, por un lado para, recopilar lo que se va a analizar, y por otro, para la socialización del material recopilado y analizado.
  - Resultados previstos.
  - Otras posibles fuentes de financiación, si corresponde.

d) Documento acreditativo de la identidad (DNI o equivalente) de cada uno de los



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

baliokidea). Datu pertsonalak: gaur egungo helbidea, telefono zenbakia, e-maila.

e) Eskatzailea onuradun izatea eragotziko duen kausaren batean sartuta ez dagoela eta betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatuko duten lekukotasunak, ziurtagiriak edo zinpeko aitopena.

Baldintza edo merezimendu hauek eta gainerako baldintza eta merezimenduak aurrerago egiaztatuko dira, bekadun izateko proposamena berari egiten bazaio.

Parte-hartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete.

Eskabideak eta gainerako agiriak eta geroago egon daitekeen korrespondentzia Elgoibarko Udalaren Herriarrentzako Arreta Bulegoan (Santa Ana 2, 20870 Elgoibar) edo modu telematikoa aurkeztu ahal izango dira [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean, "Gotzon Garate Bekaren IV. deialdia" erreferentzia jarrita.

#### 4. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak eta gainerako agiriak aurkezteko epea deialdi honen laburpena GAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta hilabeteko epean egongo da zabalik.

Eskatutako betebeharren bat betetzen ez duten eskabideak eta agiriak jasotzen badira, 10 eguneko epea emango da, akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Horrela egin ezean, eskabideak baztertu egingo dira besterik gabe.

participantes. Datos personales: dirección actual, teléfono de contacto, e-mail.

e) Testimonios, certificados o, o en su caso, declaración jurada de que la persona solicitante no se encuentra incurso en ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria y que cumple las obligaciones fiscales y para con la Seguridad Social.

La acreditación de estos y del resto de requisitos y méritos se realizará posteriormente, en el caso de ser propuesta como becario o becario.

Cada participante puede presentar más de un trabajo.

Las solicitudes y los demás documentos, y la correspondencia que se pudiera generar posteriormente, se enviarán a la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Elgoibar (Santa Ana 2, 20870 Elgoibar), o de manera telemática, mediante la web [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus), con la referencia "IV Convocatoria de la Beca Gotzon Garate".

#### 4. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN

El plazo para presentar la memoria y los demás documentos comenzará a partir del día siguiente al de la publicación del extracto de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará en el plazo de un mes.

Las solicitudes y documentos que incumplan algún requisito establecido en esta convocatoria, tendrán un plazo de 10 días para subsanar las deficiencias o presentar los documentos necesarios. Si no procediesen así, la solicitud se archivaría sin más trámites.



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

## 5. ESLEITZEKO PROZEDURA

Beka hau norgehiagoka bidez emango da. Horiek horrela, beka Elgoibarko Alkateak esleituko du, Epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Epaimahaia honako hauek osatuko dute.

Epaimahaiburua:

- Udalaren Alkate-Presidentea edo berak izendatutako ordezkaria.

Epaimahaikideak:

- Euskara arloko zinegotzi arduraduna eta Herriartasun batzordeburua edo berak izendatutako ordezkaria.
- Euskara arloko hiru aditu, Udalak aukeratutako ikergaiaren arabera izendatuko dituenak.
- Idazkaria, Alkateak izendatutakoa.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eskatu ahal izango du, eta, beharrezkotzat joz gero, hautagaiak deitu proiektua defenda dezaten.

Hauek izango dira esleipenerako kontuan izango diren irizpideak:

- a) Eskatzaileen espediente akademikoa eta curriculum: 0-15 puntu.
- b) Ikerketa-proiektuaren interesa, zuzentasuna, originaltasuna eta

## 5. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

La concesión de esta beca se efectuará en régimen de concurrencia competitiva. A tal fin, esta beca será adjudicada por el Alcalde de Elgoibar, tras recibir la propuesta del tribunal. El tribunal estará constituido por:

Presidente del tribunal:

- La Señora Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento o representante designado por ella.

Vocales del tribunal:

- La concejala responsable del área de Euskera y la concejala responsable de la Comisión Informativa de Ciudadanía o la persona representante designada por ella.
- Tres personas expertas en temas de euskera, nombradas por el Ayuntamiento dependiendo del tema de investigación de la beca.
- Secretario/a designado/a por la Sra. Alcaldesa.

Una vez analizada la documentación presentada por las personas solicitantes, el tribunal podrá solicitar información complementaria o convocar a las personas aspirantes que considere oportuno para que defiendan el proyecto presentado.

Estos serán los criterios de adjudicación:

- a) Expediente académico y Curriculum de las personas solicitantes: 0-15 puntos.
- b) Interés, corrección y viabilidad del proyecto presentado: 0-35 puntos. Si el



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

bideragarritasuna: 0-35 puntu.  
Epaimahaiak eskatuz gero, eskatzaileek txostena epaimahaiaren aurrean aurkeztu eta horren inguruan egindako galderei erantzun beharko diete.

Beka esleitzeko proposatua izan den eskatzaileak onartzen ez badu, edo adierazitako merezimenduak egiaztatzen ez baditu, zerrendako hurrengoa proposatuko da bekaren esleipendun izateko. Hala ere, epaimahaiak, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu, bekarik ez emateko proposamena egin ahal izango du.

Eskatzaileek, beka eskatze hutsagatik, uko egingo diete Epaimahaiaren ebazpenaren aurkako egintza judicial edo judizios kanpoko egintza guztiei.

## 6. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

- a) Beka eman baino lehen, adierazitako merezimenduak egiaztatzea eta bekaren onarpena sinatzea, beka esleitu zaiela jakinarazi ondorengo 7 egunetan.
- b) Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren araberako txostena aurkezteko bi hilabetetik behin.
- c) Aurreikusitako planaren edo ikerketa taldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Ezin izango da aldaketarik egin, aldez aurretik, Elgoibarko Udalaren baimena izan gabe.
- d) Udalak izendatutako adituek emandako gomendioak betetzea eta lana egiteko prozedura jarraitzea.

tribunal lo requiere, se deberá presentar el proyecto ante el tribunal y responder a las preguntas requeridas sobre dicho proyecto.

Si la persona a la que se decide conceder la beca no la acepta o no acredita los méritos, se propondrá a la siguiente persona de la lista. No obstante, el tribunal puede declarar desierta la convocatoria, si considera que los trabajos presentados no tienen suficiente calidad.

Por el mero hecho de solicitar la beca, las personas solicitantes renuncian a emprender cualquier acto judicial o extrajudicial contra la resolución del tribunal.

## 6. OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS BECARIAS

- a) Acreditar los méritos alegados previamente a la concesión de la beca y firmar la aceptación de la misma en el plazo de 7 días, a partir de la comunicación de la concesión de la misma.
- b) Envío de un informe acorde con el proyecto presentado sobre el desarrollo del trabajo (el trabajo realizado y el que está pendiente), cada dos meses.
- c) Dar cuenta de los cambios en la constitución del plan o del equipo de investigación previstos. No se podrán hacer cambios sin contar con el consentimiento previo del Ayuntamiento de Elgoibar.
- d) Cumplir las recomendaciones y procedimientos para desarrollar el trabajo señalados por las personas expertas



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

e) Bekaren amaieran lan osoa aurkeztu beharko da. Lan hori euskari informatikoan emateaz gain, lanaren 2 ale inprimatuta entregatu beharko dira, orrialdeak hurrenez hurren zenbakituak eta behar bezala koadernaturik. Irudiak, marrazkiak, argazkiak eta abar, aparteko fitxategietan aurkeztu beharko dira.

f) Ikerlana emateko azken eperako, justifikatutako arrazoirik gabe, lana amaitu ez bada, Udalak zigorren bat jarri ahal izango die bekadunei. Hala eta guztiz ere, Udalak baimena eman ahal izango du aipatutako epeak luzatzeko, baldin eta horretarako arrazoiak daudela ikusten badu. Halaber, bildutako material guztien kopia (argazkiak, irudiak, grabaketak, etab.) Elgoibarko Udalaren Euskara Sailean utziko da ikertzaileek erabili ahal izateko. (Horretarako, ikerlanaren egileei egile eskubideak eskatu beharko zaizkie).

g) Beka hau bateraezina izango da beste edozein ikerketa-beka edo lan finko osorekin. (Baldintza hau beka eskatzean bete behar da).

## 7. BEKAREN ORDAINKETA

Ordainketa honela egingo da, bidezko tramitazio administratiboa egin ondoren:

1. Kopuru osoaren %30, beka ematen den une berean, aurrerakin moduan.
2. Kopuru osoaren %30, beka ematen denetik bost hilabetera. Horretarako, egindako lanaren eta egingo denaren azalpen-txostena aurkeztu beharko da.
3. Gainerako %40a, bekaren bukaeran, ikerketa lana, amaierako txostena eta laburpena aurkeztu ondoren eta

nombradas por el Ayuntamiento.

e) Al término de la beca, deberá presentarse el trabajo completo. Esos trabajos deberán entregarse en soporte informático, y también habrán de entregarse dos ejemplares impresos de los mismos, con las páginas numeradas correlativamente y debidamente encuadernados. Las ilustraciones, dibujos, fotografías, etc. deberán ser entregados en ficheros informáticos aparte.

f) Si al término del plazo final para entregar el trabajo de investigación, sin motivo justificado, no se ha finalizado el trabajo, el Ayuntamiento podrá imponer una penalización. Sin embargo, el Ayuntamiento puede ampliar el plazo concedido, si cree que existen razones que lo justifiquen. Asimismo, la copia de todo el material recogido (grabaciones, fotos, imágenes, etc.) se entregará en el Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Elgoibar para que lo utilicen las personas que realizan labores de investigación (Para ello han de solicitarse los derechos de autor a las personas autoras del trabajo).

g) La presente beca es incompatible con cualquier otra beca de investigación o trabajo fijo. (Este requisito ha de cumplirse al solicitar la beca).

## 7. PAGO DE LA BECA

Una vez realizados los trámites pertinentes, el pago se realizará del siguiente modo:

1. El 30% del total en el momento de concesión de la beca, a modo de anticipo.
2. El 30% del total a los cinco meses de haber concedido la beca, después de haber presentado el informe justificativo del trabajo realizado y del trabajo a realizar.
3. El 40% restante al término de la beca,



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

Jarraipen Batzordeak onartu ondoren

Lana epez kanpo edota behar den moduan aurkezten ez bada, beka baliorik gabe geratuko da eta bekadunak, azken zatia ez jasotzeaz gain, aurretik jasotako kopuruak itzuli beharko dizkio Elgoibarko Udalarai. Hortaz, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, dirulaguntzei buruzko araudian ezarritako baldintzen arabera. Horretaz gain, Udalak, sortutako kalte-galeren ondorioz, dagokion kalte-ordaina eskatu ahal izango du.

## 8. LANAREN JABETZA

Lanaren jabea bekaduna izango da. Edonola ere, Elgoibarko Udalak berarentzat gordeko du, ikerketaren argitalpen osoa edota zatikakoa egiteko eskubidea. Udalak, egilearekin ados jarrita, ikerlanean beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak iradokitze eta egiteko eskubidea izango du.

## 9. GORABEHERAK

Pertsona bekadunak oinarri hauetan ezarritako baldintzetako bat bete ez duela egiaztatzen bada, dirulaguntza osoa edo dirulaguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio; horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzularazteko erabakia ere hartuko da.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar.

después de haber presentado el trabajo de investigación, la memoria final y el resumen, y haberlo aprobado la Comisión de Seguimiento.

En caso de que el trabajo no fuera presentado en tiempo y forma, esta beca será invalidada y la persona becaria, además de no percibir la última fracción del importe de la beca, estará obligada a devolver al Ayuntamiento de Elgoibar los importes recibidos hasta el momento. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, de acuerdo a las condiciones establecidas al efecto en la normativa de Subvenciones, sin perjuicio de la indemnización que el Ayuntamiento pudiera exigir por daños y perjuicios.

## 8. PROPIEDAD DEL TRABAJO

El propietario del trabajo será la persona becaria. De todas formas, el Ayuntamiento de Elgoibar se reserva para sí el derecho a publicar parcial o totalmente el trabajo de investigación. El Ayuntamiento se reserva el derecho a sugerir y modificar, de acuerdo con la persona autora, cuantos aspectos del trabajo considere oportunos.

## 9. INCIDENCIAS

Cuando se verifique el incumplimiento por parte de la persona becaria, de alguna de las condiciones establecidas en las presentes bases, se podrá revocar total o parcialmente la subvención, previa audiencia de la persona interesada, acordando en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas.

La participación en la convocatoria presupone la total aceptación de estas Bases.



Euskara  
Euskera  
2022EKBS0001

## 10. INTERPRETAZIOA.

Oinari hauen interpretazioan zalantzarik izanez gero, Elgoibarko Udalaren Heritartasun Batzorde Informatzaileak izango du zalantza horiek argitzeko eta ebazteko eskumena.

## 11. ARAUBIDE OSAGARRIA.

Oinari hauetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako, "Elgoibarko Udalaren eta Autonomiadun Erakundeen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean" ezarritakoa beteko da. Era berean, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta dirulaguntzen legeria orokorrean jasotakoa hartuko da kontuan.

## 12. ARGITALPENEA.

Bekaren deialdia Udalaren webgunean ([www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)) argitaratuko da, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) erregistratuko da; deialdiaren laburpena, berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

## 13. INFORMAZIOA

Elgoibarko Udalaren Euskara Saila  
943744366 [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus)

## 10. INTERPRETACIÓN.

Será competencia de la Comisión Informativa de Ciudadanía del Ayuntamiento de Elgoibar, la interpretación y resolución de las dudas que de las presentes bases pudieran resultar.

## 11. NORMATIVA COMPLEMENTARIA.

En todos aquellos supuestos que no han sido recogidos expresamente en estas bases, se estará a lo dispuesto en la "Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos". Además, se tendrá en cuenta lo establecido en la Ley 38/2003 General de subvenciones y en la legislación general de subvenciones.

## 12. PUBLICACIÓN.

La convocatoria de la beca se publicará en la web municipal ([www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)) y será registrada en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS), con publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

## 13. INFORMACIÓN

Elgoibarko Udalaren Euskara Saila  
943744366 [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus)